


6. Hausnarketa-jardunaldiak

bizi kultura

VIVENCIAS ESCÉNICAS PARA PÚBLICOS ACTIVOS

Maiatzak 12-13 Mayo 2022 - Getxo



ARTEKALEk, GETXOKO KULTUR ETXEArekin
elkarlanean antolatutako
ARTEEN SUKALDEA 2022,
VI. Hausnarketa Jardunaldien **KONTAKETA**

IKUS-ENTZULERIAK

Erantzunkidetasun kontua

Arteen Sukaldea 2022 - VI. Jardunaldiak: Bizi Kultura. Vivencias escénicas para públicos activos 2022ko maiatzaren 12an eta 13an egin ziren Getxon. Ostegun horretan Muxikebarrin bildu ginen, Bizkaiko udalerriko Arte, Kultura eta Kongresuen Zentroan, [hizlarien panel](#)arekin batera Kale Arteen eta ikus-entzulerien arteko harremanaz hausnartzeko, bai eta esperientzia esanguratsuak sortzearen garrantziaz edo ikus-entzuleekin kalitatezko elkarrizketak erraztearen beharraz ere. Horrez gain, herritarrak bizitza kulturean partaide egitearen garrantzia, artea ohiz kanpoko espazioetara eramatea edo euskara eta sorkuntza gure egunerokotasunean txertatzeko modua ere izan genituen solasgai.

Nabarmentzekoa da, jardunaldiaren alderdirik interesgarrienetakoa izango litzateke-eta, hainbat arlotan espezializatutako profesionalek partekatu zutela: artistak, kudeatzaileak, programatzaileak, ikertzaileak eta abar, esparru publikokoak zein pribatukoak. Izan ere, ikus-entzuleriak garatzean, taldean egindako lana denean bakarrik lortzen da behar den eragina. Eta “talde” bati buruz ari garenean, erakunde bera osatzen duten sail ezberdinei buruz ari gaitzke (zuzendaritza, programazioa, bitartekotza, komunikazioa, ekoizpena, eta abar), edo, adibidez, jaialdi eszeniko batean aktibatzen den mekanismoari buruz, non sustatzaile batek hainbat konpainia kontratatzen dituen. Aritz Lópezek, [Proyecto Larrua](#) konpainiaren zuzendarikideak, [Escena Patrimonio](#) proiektuan izandako esperientzia kontatu zuen: enkargua Salamancako Patio Chico delakorako *site-specific*¹ obra bat sortzea zen, bere izaeragatik, behin, toki horretan soilik erakutsiko zena. Noren ardura zen ikus-entzuleak deitzea? Hasiera batean, Gizateriaren Ondare diren Espainiako Hirien Taldearena, ekitaldiaren sustatzailearena. Baina zer lortu zuen Proyecto Larrua konpainiak? Tokiko eragileak obraren sorkuntzan inplikatzeko (astebetetz haiekin lan egin zuten), Salamancako ikus-entzuleak emanaldira joateaz gain, proposamen haren parte senti zitezten. Ildo horretan, **Fernando Marín** Gasteizko Udaleko Kultura teknikariak, **2020an KaldeArten, Kaleko Arteen Nazioarteko Erakustaldian**, aktibatu ahal izan zituzten esperimentuak partekatu zituen. Horietako bat, garatu zuten APP baten bidez bertaratutakoei egin ahal izan zizkieten inkestak, batez ere, Covid-19 konfinamendu hilabeteetan zehar departamentuan beste egiteko modu batzuk pentsatzeko denbora izan zutelako. Ikus-entzuleen iritziak ez zion erakustaldiko taldeari soilik balio izan, baizik eta programatuak izan ziren konpainiekin ere partekatu ahal izan zen, askok positiboki balioetsi zuten *feedback*-a.

1 Kokaleku jakin baterako berariak diseinatutako lan artistikoa.

Horiek adibide batzuk baino ez dira, ikus-entzulerien inguruan denak elkarlanean aritzea zeinen eraginkorra den erakusten dutenak, erantzukizun politikoa duten pertsonak barne, hain zuzen. Izan ere, pertsona horien ezagutza ezinbestekoa da kultura-proiektuak garatzen dituzten eta haien parte diren profesionalak beharrezko baliabide eta laguntzak izateko eta, horrela, gizartean eragin esanguratsua lortzeko.

Ikertu eta aplikatu

Ohi denez, azken ikus-entzuleriek² gure pentsamenduaren zati handi bat hartu zuten maiatzaren 12an partekatu genituen bost orduetan. **Raúl Ramos, Asimétricako** bazkide zuzendaria, izan zen lehena hitza hartzen, eta bereziki azpimarratu zuen, alde batetik, “kultura ikus-entzule” kontzeptua eguneratu behar dela estatistika nazionalan (adibidez, proposamen artistikoetan kanal digitalen bidez edo aire zabalean parte hartzen duten pertsonak barne hartuz), eta, bestetik, premiazkoa dela haietan Kale Arteak azterketa-eremu gisa sartzea, dagoeneko beste testuinguru batzuetan gertatzen den moduan. Esate baterako, 2017an [Cultur Track](#) proiektuak argitaratutako ikerketa bezalakoak, non kaleko ekitaldiak edo arte urbanoa herritarrentzako erreferentziazko kultura-jarduera gisa identifikatzen diren. Raúlen gogoeta horrek pentsarazten digu zein garrantzitsua den erakundeek egungo irizpideak dituzten ikerketak bultzatzea, gizarteak bizi duen unearekin koherenteak diren kultura-politikak artikulatzea ahalbidetuko duten datuak emango dituztenak. Baliabide gehiago dituzten esparruetatik kultura-sektorerara egin daitekeen ekarpen garrantzitsuenetako bat da.

Baina, ikerketaren eremutik haratago eta jokalekura etorriz, nola ekin ikus-entzuleriekin lan egiteari, batez ere baliabide gutxi izanda? Raúlek [Implica a tu público](#) ekarri zuen gogora, Asimétricak egindako [“Making sense of audience engagement”](#) argitalpenaren gaztelaniazko edizioa. Baliabide horretan, hurbilketa teorikoez gain, inspirazio praktikoko kasuak ere aurki daitezke.

Eta jokalekutik bertatik, landa-jokalekutik zehazki, **Amaia Gabilondok, Garaion** sormen-fabrikako arduradunak, jardunaldiaren gakoetako bat topatu zuen: euskarazko “harreman” hitza, hau da, “hartu” eta “eman” hitzak elkartuta osatutakoa; eta honela definitua: “Pertsonen edo pertsona multzoen artean gertatzen den eragin trukea edo komunikazioa.”

Amaiak kontatu zigunez, Garaionen (Arabako Ozaetan kokatua) maitasuna eta sen ona dira ikus-entzuleriekin egiten den lana egituratzen dutenak, eta tandem horri esker lortu dira aipatu zituen mugarriak, hala nola, urtero 140 artista inguruk bertan egoitza artistikoak garatzea, eta haien lanek, oraindik prozesuan, udalerriko bizilagunen *feedback*-a jaso ahal izatea. Bizilagun horiek ez daude artean espezializatuta, baina ulertzen dute leku horretan haien iritzia entzun eta aintzat hartzen dela. Garaionek fruta-saltzaileari eta okinari ordaintzen die, ogia eta

² Hau da, kultura-proposamen bateko ikusleak edo parte-hartzaileak.

sagarrekin batera, bertako adinekoek programazioaren *flyer*-a jaso dezaten. Garaionen bermuta, txokolatea eta gauza gozoak zerbitzatzen dira, bertara hurbiltzen diren pertsonen gustura hitz egin dezaten.

Artisten eta ikusleen arteko harremanaren inguruan lan egiten du **Lisa Baxterrek** ere, [*"The Experience Business"*](#)-en sortzaileak. Lisak sortzaileei laguntzen die beren ikus-entzuleentzat benetan esanguratsuak diren esperientziak sortzen. Eta puntu horretan sortzen da ikus-entzulerien gai honi buruzko galderarik sentikorrenetako bat: **zenbateraino pentsatu behar dute sortzaileek horietan?** Baxterrek obra artistikoa helburu baterako bitarteko gisa ulertzen du, ez helburu gisa bere horretan, eta hau baieztatzen du: **"lan artistikoaren balioa ikus-entzuleen esperientzian datza"**. Lisak ikusleak segmentutan banatzen ditu: **experiencers** (kontzentratzen direnak eta unean uneaz gozatzen dutenak), **processors** (gogoetan jartzen direnak) eta **do-ers** (aukera izan bezain laster laugarren pareta apurtzen dutenak). Eta sortzaileei proposatzen die haiengan pentsatzea ez obrari "eragiteko", asmo zehatzago batekin sortzeko baizik, ikusleen bizipena ahalik eta argigarriena izan dadin. Lisak, hurrengo egunean jardunaldi hauen baitan gidatu zuen tailer baten lehen mokadu gisa, Kale Antzerkiak ikus-entzuleentzat dituen onurak zeintzuk diren pentsatzera gonbidatu gintuen. **Harridura faktorea, espazio publikoa beste modu batera ezagutzeko gonbita, zerbait lehen aldiz bizitzeko ustekabeko aukera edo esperientzia kolektibo baten parte sentitzea** izan ziren sortutako erantzunetako batzuk.

Ikusleak oso kontuan hartzen diren benetako kasu bat [*Igorre*](#)koa da, aspaldidanik elkarre-sare aktibo eta sendoa duen Bizkaiko herria. Errealitate horrekin bat etorritik, Udalak, 2006an **Kultur Etxea** ireki zenetik, parte-hartze prozesu bat abiaraztea erabaki zuen eta, horri esker, hitzartutako erregulartasunarekin, Udala eta bizilagunak kultura-programaziorako proposatzen diren edukiak kontrastatzeko biltzen dira. Zer abantaila ditu eredu horrek? Herritarrek bizitza kulturalaren zati bat ezagutzen dutela, kontraprogramazio edo data edo ordutegi desegokiak saihesten direla, eta, herritarrak azken kontuetan egunean daudenez, udalerrriak punta-puntakotzat jotzen dituen edukiak programatzea lortzen duela. Zer da zailena? **Illart Gumuzio** alkateak, **Mikel López de la Pinta** kultura-programatzaileak eta **Ainhoa Zuluaga** bizilagunak azaldu zigutenez, denborak ondo kudeatzea lortzea, kontratazioak aurrerapen handiz lantzen uzten ez duen sistema baita.

Igorrekoa inguruaren entzumenean eta behaketan oinarritzen den sistema da, eta **Johana Olabarriak** ere, [*Euskaltzaleen Topagune*](#)ko ordezkari gisa, aipatu zuen behar hori. Testuinguruari erreparatzea, sakon ulertu eta bidea aurkitzeko, berriz ere ziur egoteko kultura gizakiarentzako berezko beharra dela. [*ATX Teatro*](#)ko **Iñaki Ziarrustak**, Johanarekin mahai ingurua partekatu zuenak, adierazi zuen, hain zuzen ere, azken urteotan suntsitu den ikus-entzuleria dela lortzen zailena, kuantitatiboa proposamen kulturalen arrakastaren adierazle ia bakarra bihurtzearen ondorioz. Joera horrek, gaineratu zuenez, kulturaren hainbesteko desbirtualizazioa ekarri du, ezen gizarteak ez dakien ez zertarako balio duen, ez non datzan bere benetako garrantzia. Puntu horretan, erakundeei dei egin zitzaion, sektoreak bultzatutako proiektuak ebaluatzeko beste modu bat premiaz babes dezaten.

Gako teoriko-praktikoa: harremanak zaintzea

Harremanak aztertu eta zaintzearen garrantziak ikus-entzuleriei eskainitako jardunaldi hori guztia ukitu zuen. Raúl Ramosek kontatu zigunez, ingelesezko “*engagement*” terminoaren benetako esanahia ulertzeko hainbat ahalegin egin ondoren (ikus-entzulerien garapenean eta arteen marketin anglo-saxoian asko erabilia), **Alan Brown** nazioarteko ikertzaileari bertsio sinplean azaltzeko eskatu zion, eta hauxe erantzun zion: “*engagement antzerkiak zurekin egin duen guztia da, azkenekoz joan zinenetik hurrengora arte*”.

Ildo horretan, tresna digitalen potentzialari buruzko ezagutza funtsezkoa da ikus-entzuleekiko harremanean aurrera egiteko, eta, Johana Olabarriak defendatu zuen bezala, baita gizarte hau osatzen dugun belaunaldiok erlazionatzeko ditugun moduen etengabeko behaketa ere. Bi gai horiei erantzuteko, jakina, kultura-erakundeek behar dituzte kudeaketan espezializatutako giza baliabideak, inbertsio eta ikerketetarako baliabide ekonomikoak eta proiektuak garatzeko denbora jasagarriak.

Hala ere, eta horri erreparatzen zion Amaia Gabilondok, harreman-marketinetik proposatzen denaren zati garrantzitsu bat, aspaldidanik aplikatzen da gure herrialdeko sektorean, baita bere egitura txiki eta ahulenetan ere. Zentzu horretan, **Silvia Rubiok**, [El Pobal Burdinola](#)ko hezkuntza arduradunak, kontatu zigun zein garrantzitsua den bere lantaldearentzat haien espaziotik igarotzen diren bisitari guzti-guztiekin harreman zuzena izatea. Horrela, Bizkaiko museo honetan nahikoa da pertsona bakarra sartzeko bisita gidatu bat abian jartzeko, eta profesional bakoitzaren entzute aktiboa funtsezkoa da erabiltzaileen pertzepzioa jasotzeko eta haien esperientziaren kalitatea ebaluatzeko. Horri dagokionez, Lisa Baxterrek berretsi zuen garrantzitsua dela ikus-entzuleekin elkarrizketak sortzea, informazioa ateratzeko ez ezik, trukatzeko ere. Esaterako, Aritz Lópezen konpainiak elkarrizketa esanguratsua lortu zuen ikusleekin, Escena Patrimonio jaialdiak Salamancako haien emanaldiarekin egin zuen streamingaren ondorioz; izan ere, 750 pertsona inguruk jarraitu zuten zuzenean emanaldia eta sare sozialek, ondoren, ikus-entzule horiekin harremana jarraitzeko bide gisa balio izan zuten, a priori Proyecto Larrua konpainiak aurkitzea espero ez zuena.

Ez - formula

Arteen Sukaldea VI. Jardunaldietan egiaztatu genuen bezala, ikus-entzuleriekin egin beharreko lanari oso modu desberdinetan ekin ahal eta behar zaio; erronka hori kultura-sektoreko kide garen pertsona guzti-guztioi dagokigu, baina ez guri bakarrik, gizarteari berari ere, hura baita, hein handi batean, kultura pertsonen bizitzan dagokion tokian (berriz) kokatzearen arduraduna.

Hain da zabala gai hau, non askotan gainezka egin eta frustratu egiten gaituen, eta geure buruari galdearazten digu ea ba ote dagoen nahita ezkututzen ari zaigun formula sekreturen bat... baina ez, nire ikuspuntutik behintzat. Horrelako topaketek taldean inspiratzeko aukera ematen digute, eskura ditugun baliabide eta prestakuntza-proposamenek irtenbide berriak imajinatzen bultzatzen gaituzte, eta aurrerapen teknologikoen eguneroko lanean aurrera egiten laguntzen digute (eta asko lagundu ere). Baina kultura-proiektu bakoitzaren berezitasunak hurbilketa bakarra eskatzen du ikus-entzulerien garapenari dagokionez.

Horretarako, lehenengo ariketetako bat (batere erraza ez dena, egia esan), ikus-entzuleriak segmentatzea izaten da, eta une horretan beti entzuten ditut nire baitan **Lucina Jiménez** antropologo mexikarraren hitz hauek:

«Antzerkiko ikus-entzuleriak ez dira berez existitzen. Badira interes eta ondare kultural, psikologiko, politiko, ideologiko eta ekonomiko desberdinak dituzten hainbat herritar talde, umore-zentzu, esperientzia emozional eta sentimental oso desberdinak dituztenak, eta haien eguneroko jardunean antzerki-izaera dosi handia adierazten dutenak. Existitzen dena honako hau da: gizon eta emakume multzo bat, gazteak eta helduak, heterosexualak eta homosexualak, gaituak edo ezinduak, argalak edo gizenak, altuak edo baxuak, pobreak, erdiko klasekoak edo aberatsak, lan egiten, jaten, zalantza egiten, lo egiten, maitasuna egiten, erosketak egiten..., telebista ikusten, musika entzuten..., zinemara joan eta krispetak jaten, dantzatzen, eta batzuetan antzerkira joaten dira.»³

Izan ere, kultura-sektoreko proiektu eta erakundeekin lotutako pertsonen profil ezberdinak definitzea baliagarria dela sinesten badut ere, gero eta konbentzituago nago erronka imperfektua dela ezinbestean, eta beti ihes egingo digutela gizaki bakoitzaren bizitza konplexua eta kontraesankorra izateari lotutako aldagai ugari.

Bestalde, azken ikus-entzuleria horietatik haratago, hau da, antzezlan baten ikusleak edo museo bateko bisitariak, eragile preskribatzaileak, laguntzaileak, finantzatzaileak edo hainbat rol dituzten beste batzuk funtsezkoak dira kultura-proiektuen bideragarritasunerako eta garapenerako, eta, beraz, haien ikus-entzulerien ekosistemaren zatitzat hartzea merezi dute. Horrek esan nahi du, ikus-entzulerien arloko estrategiak eta ekintza-planak lantzerakoan, baita aztergai dugun bezalako foro profesionaletan horiei buruz hausnartzerakoan ere, haiek ere helburu gisa sartu behar direla; azken batean, nire ikuspuntutik, kultura-sektoreko erakundeetan gai horri heltzeko hurbilketarik egokiena da, integrala delako.

3 Un trabajo artístico específicamente diseñado para una locación concreta.

Hala eta guztiz ere, ziur asko ikus-entzuleriak garatzea da eragileek, Kale Arteetan espezializatutakoak barne, aurre egin behar dieten eginkizunetatik artisau-lan handienetako eta estrategikoenetako bat; horregatik da garrantzitsua kultura-politikek beharrezko baldintzak ahalbidetzea sektoreko egiturek beren ikus-entzuleekin egiten duten lana merezi duen toki nagusian kokatu ahal izateko.

Amaitzeko, zorionak **Artekaleri**, *Arteen Sukaldea 2022*ko lehenengo egunean elkarrizketa interesgarri hauetarako deia egin digulako eta bigarren eguneko programaren diseinuagatik. Izan ere, hilaren 13an, aipatutako Lisa Baxterren tailerrari, non sortzaileek beren ikus-entzuleriak ikertu ahal izan zituzten, [Zirkozaurre](#)ren, [La Pez Konpainia](#)ren eta [Arriera](#)ren proposamenak gehitu zitzaizkion. Lehenak, **Zirkotarrak** izenekoak, jolasaren bidez zirkua ezagutzeko deia egin zien txikienei. Bigarrenak, **Gora Bihotzak!** izenekoak, [Gaude Anitzasun Funtzionalaren Elkartek](#)ko kide gazteei beren istorioak kontatzeko eskatu zien, diziplina anitzeko hiri esku-hartze baten bidez. Hirugarrenak, **Edenek**, bere musika, objektu eta dantza ikuskizun-collagea erakutsi zuen, eta, amaitzean, bertaratutako ikus-entzuleak instalazio eszenikoa ezagutzera gonbidatu zituen: ikusteko, entzuteko... eta eragiteko 7 kutxa. **Arteen Sukaldea VI. Jardunaldiak Muxikebarri** inguruan amaitu ziren, eta Getxoko udalerriko bizilagunekin batera sortutako proiektu bat, tailer bat eta instalazio interaktibodun ikuskizun bat hartzeko eraldatu ziren. **Proposamen iradokitzazilez betetako bi egun, ikuspegiak partekatzeko eta, oro har, Arte Eszenikoekiko eta, zehazkiago, Kale Arteekiko dugun jakin-mina pizteko.**

Irene Intxausti

[Teklak. Komunikazio eta Audientzien Estudio](#)ko bazkide sortzailea